



2000KO EKAINAREN 29KO
OHIKO OSOKO BILKURA

Lazkaoko Udaletxean, bi milako ekainaren hogeita bederatzian, iluntzeko 7etan, Lazkaoko Udal Osoa biltzen da, aurrez honetarako deialdia egin delarik, Felix Urkola Iriarte Alkatearen lehendakaritzapean, ohiko batzarraldia egin asmoz.

Beratarutako zinegotziak honako hauek dira: Igor Sarriegi Zumarraga, Inazio Estenso-ro Eskisabel, Gorka Lamy Intsausti, Arantxa Zumelaga Agirre, Irantzu Amundarain Irizar, Julio Ibañez Urteaga, Jon Agirre Garmendia eta Urko Irastortza Aldanondo.

José Antonio Dopazo Martín eta José Luis Otamendi Romero zinegotziak ez dira ber-taratu.

Idazkari lanetan Iñaki Eskisabel Zurutuzak dihardu.

I.- AURREKO AKTA.-

Alkateak bilkurari hasera eman ondoren, beratarutakoen onespenera aurkezten da 2000ko maiatzaren 25ean egindako bilkurako akta.

Irastortza zinegotziak (EH) esaten du beraiek aurkeztu zituzten bi mozioetan, aspektu batzuk jarri gabe daudela eta bi parrafotan ezin daitezkeela laburtu esan ziren guztiak eta pixka bat osatzeko eskatuko lukeela, eta horrela dauden bezala ez dituztela onartuko.

Alkateak galdetzen dio ea zein matizazio egin beharko liratekeen.

Irastortza zinegotziak erantzuten dio bai berak bai Irantzuk beraien jarrerak adieraz-teko arrazonamendu pixka bat luzeagoak ere eman zituztela eta herriaren aurrean bi parrafo-rekin aurkeztea ez zaiela egokia iruditzen.

Idazkariak esaten du akta akordioen akta dela eta ez bilkuran esaten den guztia jasoko duen akta. Gaineratzen du hori horrela izanik, jasotzen dena akordioak direla, eta akordio horien aurrean alderdi bakoitzak ematen duen botuaren esplikazioa.

Irastortza zinegotziak esaten du berak ez duela eskatzen dena hitzez hitz jasotzea baina bai eman ziren argumentazioak jasotzea. Gaineratzen du gero akta hoiak publikoak di-rela eta jendeak irakur ditzazkela eta aktan datorren laburpena nahiko pobrea iruditzen zaiola.

Idazkariak esaten du bere ustez aktak ondo jasotzen duela bilkuran gertatutakoa, dena den etorkizunean saiakera berezia egingo duela bera horrelako irudipenarekin gera ez dadin.

Gai hau zabal eztabaidatu ondoren, bozketan jartzen da aurreko aktaren onarpena, eta Osoko Bilkurak, aldeko 5 botu (EA),EA) eta aurkako 4 botuz (EH) berau onartzea erabaki-tzen du.

...///...



...///...

II.- ALKATETZAKO EBAZPENEN BERRI EMATEA.-

Ondoren Alkateak azken Osoko Bilkuratik gaur arte emandako Alkatetzako Ebazpenen berri emten du, ebazpen hauen zenbakizko laburpen baten bidez.

Osoko Bilkura jakinaren gainean gelditzen da.

III.- M^a SALOME APEZTEGIA SAN ROMANEK TARTEJARRITAKO ERREKURTSO KONTENTZIOSO-ADMINISTRATIBOA.-

M^a Salome Apeztegia San Roman Andereak errekurtsu kontentzioso-administratiboa tartearri du Euskal Herriko Auzitegi Nagusiaren Kontentzioso-Administratiboko Salaren aurrean, Elozegi 20-28 zenbakiak hartzen dituen gunearen birpartzelazio proiektua onartzen deneko 2000ko otsailaren 4ko ebazpenaren aurka tartearritako birjarpen errekurtsuaren aurrean administrazioaren isiltasunarengatiko presuntziozko ezespena dela eta.

Honen aurrean, Alkateak, 2000ko ekainaren 22ko ebazpen bidez, zera ebatzi zuen:

- 1.- Euskal Herriko Justizi Auzitegiko Salara eskatutako espedientearen egiaztatutako kopia foliatuta bidaltzea.
- 2.- Espedientean interesatu direnak enplazatzeari, 9 egunetako epean errekurtsuan demandatu bezala bertaratu ahal izateko.
- 3.- Udala prozedimentuan bertaratzea, Jon Orue-Etxebarria Iturri abokatuak, eta Alberto Arenaza Artabe eta Miguel Olaizola Segurola prokuradore izanik.

Hau honela, Udal Osoko Bilkurara ekartzen da, honek alkatetzako ebazpen bidez hartutako erabakia berrestu dezan.

Osoko Bilkurak, bertaratutako bere partaide guztien aldeko botuekin, alkatetzako ebazpen bidez hartutako erabaki hauetan berretsi egiten da.

IV.- M^a JOSE KORTA BEREZIARTUA ETA BESTE BATZUK TARTEJARRITAKO ERREKURTSO KONTENTZIOSO-ADMINISTRATIBOA.-

Maria Jose Korta Bereziartua Anderea eta beste batzuek errekurtsu kontentzioso-administratiboa tartearri dute Euskal Herriko Auzitegi Nagusiaren Kontentzioso-Administratiboko Salaren aurrean, Elozegi 20-28 zenbakiak hartzen dituen gunearen birpartzelazio proiektua onartzen deneko 2000ko otsailaren 4ko ebazpenaren aurka eta errekurtsogileak errekurritutako egintzaren badaezpadako etetea eskatu du.

Honen aurrean, Alkateak, 2000ko ekainaren 27ko ebazpen bidez, zera erabaki zuen:

- Udala prozedimentuan bertaratzea, Jon Orue-Etxebarria Iturri abokatuak, eta Alberto Arenaza Artabe eta Miguel Olaizola Segurola prokuradore izanik.

Hau honela, Udal Osoko Bilkurara ekartzen da, honek alkatetzako ebazpen bidez hartutako erabakia berrestu dezan.

...///...



...///...

Osoko Bilkurak, bertaratutako bere partaide guztien aldeko botuekin, alkatetzako ebazpen bidez hartutako erabaki hauetan berretsi egiten da.

V.- OROBIONE ETXEAREN BIRRERAIKUNTZARAKO KONTRATAZIO ESPEDIENTEA.-

Orobione etxearen birreraikuntza lanak esleitzeko osatutako kontratazio espedientearen berri ematen da.

Alkateak baldintza pleguan ezarri diren esleipen erizpideen azalpena egiten du. Esaten du obra ondo egiteari eman nahi zaiola garrantzia eta erizpideak hori bermatzera zuzendu direla. Gehitzen du prezioari dagokionean balorazio gehiena aurkezten diren guztien eskeintzen batz bestekoari ken ehuneko 5 puntutara gehien inguratzen denari emango zaiola.

Agirre zinegotziak (EH) esaten du prezioenak loteria ematen duela, erabat arbitrarioa dela denen prezioen arabera egitearena.

Alkateak erantzuten dio prezioarena horrela jartzea erizpide tekniko bat izan dela.

Irastortza zinegotziak (EH) esaten du ez zaiola iruditzen sistema hori objetiboa denik.

Estensoro zinegotziak (EA) esaten du obra honetan lana ondo burutzea bermatu nahi dela eta horregatik ez dela merkeena gehiena baloratzen.

Sarriegi zinegotziak (EA) esaten du berari objetiboa iruditzen ez zaiona berak ezer jakin gabe gauza hauei buruz eztabaidatzen sartzea dela.

Beste alde batetik Estensoro zinegotziak esaten du iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzeaz gain era honetako obra bat burutu zezaketenei buruz Diputaziotik jaso zen enpresen zerrendan agertzen direnei idatzi bat bidali behar litzaiekela, deialdiaren berri emanez eta proiektua non fotokopiatu dezaketen esanez.

Irastortza zinegotziak esaten du idatzi hori batzuei bidali eta besteei ez bidaltzea ez dakiela zenbateraino dagoen ondo.

Estensoro zinegotziak erantzuten dio arazoa hori baino gehiago bestea dela, hau da inor ez aurkeztea, eta hori gerta ez dadin hobe dela zabalkunde hori ematea.

Irastortza zinegotziak esaten du egin behar baldin bada ahalik eta zabalena egin beharko litzatekela.

Guzti honen ondoren gaia bozketan jartzen da eta Osoko Bilkurak, bertaratutako bere partaide guztien aldeko botuarekin, honako akordioak hartzen ditu:

Lehenena.- Kontratazio espedientea izapidatze arruntekoa aitortzea.

Bigarrena.- Kontratua prozedura ireki eta lehiaketa bidez esleitzea.

...///...



...///...

Hirugarrena.- Kontratua eraendu beharko duen Klausula Administratibo Partikularren Plegua onartzea.

Laugarrena.- 2000 ekitaldiari dagokion gastua onartzea 1.0000.622.313.00.01 partidaren kargura eta 60.237.474,- pta.ko kopuruz, 362.034'51 Euro, hala nola 2001 eta 2002 ekitaldiei dagokien gastua, 80.000.000,- pta., 480.809'68 Euro, eta 31.281.570,- pta., 188.006'02 Euro, hain zuzen ere.

VI.- GALDERA ETA ERREGUAK.-

Amundarain zinegotziak (EH) aurreko Osoko Bilkuran Belen Gonzalezi herriko informazioa bidaltzeari buruz esandakoa bete al den galdetzen du.

Alkateak erantzuten dio bidali zitzaizkiola baina ez dakiela iritsi ote zaizkion. Gaineratzen du Belen Gonzalezen epaiketari buruz bere aitarekin egon dela eta honek epaiketa irailera atzeratu ote den esan diola, itzultzailea eskatzearen ondorioz.

Amundarain zinegotziak esaten du azkeneko hirigintza batzordeetako bilerak berandu hasi direla eta beraz edo ordua aldatu egin beharko dela edo bestela puntual hastea eskatzen duela.

Alkateak erantzuten dio berak ez daukala arazorik atzeratu behar baldin bada ere baina azkeneko berandu hasiak beste bileraren batzuek berandu bukatu izanaren ondorioa izan direla.

VII.- BILERAREN AMAIERA.-

Eta eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, Alkateak bilera amaitutzat jotzen du, gaueko zortziak eta bost minutu direnean nik, Idazkariak, guztiaren akta jaso eta ziurtatzen dudalarik.

